

KAIXO! GARFI TXIKI PIRATA NAIZ. 5 URTE DITUT,
ETA ITSASONTZI HANDI ETA POLIT BATEAN BIZI
NAIZ, NIRE GURASOEKIN. BURUAN ZAPI BAT DUT,
BEGIAN PARTXE BAT ETA ESKUAN EZPATA. TXIO
NIRE LAGUNA DA, BETI NIRE SORBALDAN EGOTEN
DEN LOROA. AGUR, LAGUNOK, ETA LASTER ARTE!

KAIXO, LAGUNOK, GARFI TXIKI PIRATA NAIZ
BERRIRO. PIRATOK ITSASOAN ZEHAR IBILTZEN
GARA, OLATUEKIN BATERA, GORA ETA BEHERA,
GURE ITSASONTZIAN. PIRATEN ITSASONTZIARI.
PIRATA-ONTZIA DERITZOGU. PIRATA-ONTZIAK
BANDERA BELTZA DU. BIDAIATZEA ETA ABESTEA
ASKO GUSTATZEN ZAIGU. ETA ZUEI ABESTEAN
GUSTATZEN AL ZAIZUE? AGUR, LAGUNOK, ETA
HURRENA ARTE!

KAIKO, LAGUNOK! PIRATOK ALTXORRAK BILATZEN
DITUGU, ITSASOAN EDO UHARTEETAN. ALTXOR
KUTXAREN BARRUAN URREZKO ETA ZILARREKO
TXANPON ASKO ETA BITXIAK EGOTEN DIRA; OSO
POLITAK DIRA. AIO, PIRATA TXIKIOK!!

KAIKO, LAGUNOK! JOLASTU NAHI AL DUZUE
NIREKIN? BA, ORAIN, ZUEK DUZUE ALTXORRA
BILATZEKO TXANDA! PREST? ENTZUN!
ALTXORRAREN MAPA IZATEKO, MEZU GUZTIAK
ELKARTU ETA ITSATSI BEHARKO DITUZUE.
GAINERA, 4 PISTA EZKUTATU DITUT ESKOLAN.
PISTAK ONGI JARRAITZEN BADITUZUE, NIRE
ALTXORRA AURKITUKO DUZUE.
ZORTE ON, ETA EA ALTXORRA AURKITZEN DUZUEN!
AIO, PELAIO!